

de Dios para la difusión del Evangelio, *fué el don de lenguas* que concedió á los Apóstoles en los comienzos de la Iglesia. Es decir que en la universalización de los idiomas hubo evidentemente la intervención divina, y divina es esta obra, con tal que se haga servir no solamente al progreso material de los pueblos, sino que también á la difusión de la religión y la moral católica sin las cuales es imposible la realización de los sublimes y hermosos ideales que constituyen la única y sólida base de la verdadera dicha de los pueblos.

PÍO MARÍA MORTARA, *C. L. R. mis. Apost.*

ESKUALDUN GUZIAK BAT

Lapourdi eta Bachenabarre,
Chuberua eta Nabarra
Gipuzkua eta Bizkaya,
Zazpi garrena Alaba;
Guziek elgar atchik dezagun
Neolere aal bada
Aiten kostumak segi ditzagun,
Galdu ez dezagun ama.

Zazpiek elgar atchik dezagun,
Denok eskuyak emanik
Iru Franzian lau Espainian,
Aparte izana gatik;
Leenagoko arrangurak utz,
Elgar maita biotzetik
Eskualerriak anayak dira
Mundura sortus gerostik.

Naiz Franzian ala Espainian,
Iuanden denbora andian
Gure mintzaiya naiz galarazi,
Ari diraden lanian.

Ama utzi eta amaizuna ar,
Gerta litake orduyan
Geldi gaitezen gure amarekin,
Oberik esda munduyan.

Oriek ola emana gatik,
Gure kontrako legiak
Ez dira bear utzi burutik,
Tipitikan ikasiak.
Gure languayaz mintza gaitetzen,
Eskualdun kasta guziak
Gutaz irrik ein ez dezaten,
Franziak ez Espainiak.

Ikus dezaten oraino ere,
Ez dela arras galdua
Elgarretatik urrundu gatik,
Urbil dugula gogua;
Izana gatik bi erresumez
Eskualerria artua
Ez dugu bear utzi galzera
Elgarren amodiya.

Eskualerriak gaizki gabiltza,
 luanden aspaldi andian
 Batzu Kastillak berziak Fransesez,
 Ari gira solasian.
 Denen ikastia gizonak ondu,
 Aise ibiltzeko munduyan
 Bainan eskuara atchik dezagun,
 Aatzi gabe buruyan.

Aita eskuaraz mintzo-da eta
 Semiak arrapostuya
 Eskualduna naiz, baña aantzi zait
 Tipitikan ikasia!
 Ez deya ori amaren dako,
 Biotz erdira garria
 Berak mundurat eman onduan,
 Semiak ez ezagutzia.

Ama eskuara biotza triste,
 Nigarres urturik dago
 Ikusiz semek ez diotela
 Kasurik eiten geiyago.
 Eri da eta lagun dezagun,
 Senda ditake oraino
 Orai sendatus bizi litake,
 Mendeak mendo direno.

Nigarrez atzo, nigarrez egun,
 Nigar egiten du beti
 Bere semiak galdu tuyela
 Eta neun ezin kausi.
 Ori ez daite mundu unetan
 Gure aldian beizik bizi
 Zertan gabiltza nere anayak,
 Gure amaren iesi.

Abia gaiten ama gaichoari,
 Erremedio eitera

Egin aala egin dezogun,
 Ez dezagun utz ilzera
 Gure gatikan bizi da eta,
 Badagu orren bearra
 Iltzen bazaiku ama Eskuara,
 Guziak galduak gira.

Gure semiak sortu orduko,
 Eskualdun legian ezar
 Ez ditene gure kontra atera,
 Eyek egun edo biar;
 Lenagokuek erakutsiak
 Ez ditugu aatzi bear
 Berze mundutik guri beatuz
 Egin ez dezaten nigar.

Azko gabiltza mundu kurritzen,
 Sortu lekuyak utzirik
 Bertze lurretan aberasteko,
 Ilusionez beterik!
 Gure erriak tristerik daude
 Beren semiak galdurik
 Gou berriz emen ara eta una,
 Ezin kausituz deus onik.

Mendi artian sortuya gatik,
 Eskualerriko yendia
 Norat nai den atera dadin,
 Denez ontsa ikusia.
 Mundu guziak ezagutzen du
 Guk daukagun izaitia
 Gure aiten aitek odola ichuriz
 Guretzat irabazia.

Zori oneko itsas basterra,
 Kantabriako zokua
 Gure Jinkoak eskual-dunentzat,
 Ori dauka autatua!

Mundu guzian orai-ta leen,
Beti fama aundikua,
Guziek indar egin dezagun
Izan ez dadin galdua.

Denbora batez gerlari ainitz
An ibili izan dira
Eskualerriko iendia naiz,
Bere lurretik atera;
Egin aalak ein zuzten bainan
Gaizki yuan zaiyen afera
Mendi artian dagon leoina
Andik kentzia neke da.

Zesarren odrez tropak yin ziren,
Kantabriarat milaka
Oituruak denen ibiltzen,
Beren aitzinian lasterka
Gero tristerik itzuli ziren
Gerlari ainitz utsi eta
Etziotela apal ikusiz
Eskualdunaren kopeta.

Eskualerriak eman izan tu,
Biziki gizon andiak
Biotzez noble burua gora,
Neoren beldur gabiak.
Beti oyuka libre edo il,
Ok dira gure legiak
Romano yaun-ek ikusi tuste
Eyek egin balentriak.

Ez deya bada dolu ein garri,
Olako arraza galzia

Leen guriak ziraden lurrak,
bertzen eskuyan uztia
Bakotcha bere lurren nagusi,
Iartzen arida iendia
Ez dugu bear galdu esperantza
linen da gure denbora.

Asko presunek erranen dute
Burutik iauna naizela
Ikusionez betia kantuz,
Ari nizelakotz ola.
Bainan ez bada ur bilakatzen,
Eskualdunaren odola
Elgarri fidel egon gaitezen,
linen da gure denbora.

Gure aitamen aiten erranak,
Bear ditugu sinetsi
Ez dela bear gure errian,
Eskuara beizik onetsi.
Eskualdun sortu, eskualdun bizi,
Eskualdun il eta eortzi
Munduyan ori eiten duyenak
Zeruya duke merezi.

Mendiage-ren partetik orra,
Eskualerrier goraintzi
Montebidora gasterik yina,
Ez naiz itzuliko naski.
Niaurek ere ortaz badaukat,
Neure baitan pena aski
Urrun naiz bainan ene biotza
Zuyekin bizi da beti.

JOSÉ MENDIAGE.

